

Debabarreneko gazteen artean bertsolaritza eta bertso jarrien idazketa bultzatu eta sustatzeko helburuarekin, XXI. mendean hirugarrenez, Txirristaka Saria Bertsopaper Lehiaketa antolatu dute elkarlanean InLeike kultur Elkarteak eta Mendaroko Udalak.

Honako hauek dira lehiaketaren oinarriak:

**1. Parte-hartzaileak**

Lehiaketa honetako A kategorian Debabarreneko egileek soilik parte hartu ahalko dute. B eta C kategorietan aldiz, Euskal Herri osoko egileek hartu ahalko dute parte.

**2. Kategoriak eta lanen ezaugarriak**

Hiru kategoria ezarri dira:

**A kategoria:**

- 2012an edo ondoren jaiotakoak
- 2 bertso gutxienez, 4 gehienez

**B kategoria:**

- 2008 eta 2011 urteen artean jaiotakoak (biak barne)
- 4 bertso gutxienez, 8 gehienez

**C kategoria:**

- 2007an edo lehenago jaiotakoak
- 8 bertso gutxienez, 12 gehienez (elkarrekin nolabaiteko batasuna osatu beharko dute)

A eta B kategorietan egileek bina bertsopaper aurkeztu ditzakete gehienez ere. C kategorian lan bakarra aurkeztu ahalko dute.

Aurkeztutako lanek gai eta neurri librea izango dute, euskaraz idatziak izan beharko dute, jatorrizkoak eta argitaratu gabeak.

Ezinbestekoa da bertsoen doinua zehaztea. Lanek, gainera, ezinbestean bete beharko dituzte oinarrizko kalitate irizpideak.

**3. Sariak**

Ondorengoak dira ezarritako sariak:

A kategoria

- 1. Saria: 100 euroko kultura-bonoa
- 2. Saria: 50 euroko kultura-bonoa

B kategoria

- 1. Saria: 200 euro
- 2. Saria: 150 euro

C kategoria

- 1. Saria: 1.000 euro (\*)
- 2. Saria: 500 euro (\*)

Kultura-bonoa txartel bidez jasoko da. Txartel hori txartelean aipatzen den dendan trukatu da. Txartela trukatzeko epea hilabetekoa izango da, hura jaulkitzen denetik. Txartela ez bada adierazitako epean erabiltzen, guztiz edo parte batean, antolatzaileek ulertuko dute saridunak uko egin diola saria hartzeari edo trukatu gabe utzitako kopuruari.

(\*) Diruz hornitutako sariei PFEZ dela-eta dagokion atxikipena aplikatuko zaie

**4. Aurkezteko modua eta epea**

Lanak jasotzeko azken eguna 2026ko maiatzaren 22a izango da.

Parte-hartzaileek haien lana eta parte hartzeko datuak aurkeztu beharko dituzte, postaz (Mendarokoa Udala, Herriko Enparantza Plaza, Garagartza, 20850 Mendaro) edo Mendaroko udaleko webgunean argitaratutako galdetegiaren bitartez.

**POSTAZ PARTE HARTZEKO JARRAIBIDEAK**

Gutun-azalaren kanpoko aldean, honako testu hau idatzi behar da:

- Txirristaka saria
- Kategoria (dagokion kategoria adierazi)
- Lanaren izenburua (bertsopaperaren izenburua adierazi)

Gutun-azal horren barnean, batetik pertso papera bera sartuko da, izenburua eta doinua adierazita, beste daturik gabe. Bestetik, beste gutun-azal bat sartuko da, itxita eta kanpo aldean bertso paperaren izenburua idatzita eramango duena, eta horren barnealdean, orri bat, egilearen datu hauek adierazita: izena eta bi abizen, jaiotze-data, helbidea, telefonoa eta helbide elektronikoa, horiek guztiak bertso paperaren egileari dagozkionak. Baldin eta lan batean ez badira egilearen datuak behar bezala ematen, lana ezin izango da lehiaketan onartu.

## **FORMULARIOZ PARTE HARTZEKO JARRAIBIDEAK**

Fomularioan eskatzen diren datuak bete eta dokumentuak erantsi beharko dira. Datu pertsonalez gain, kategoria, izengoitia eta aurkezten diren lanak.

Antolatzaileek bermatzen dute datu pertsonalen babesari buruzko indarreko araudia betetzea, zeina Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan jasotzen baita. Halaber, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua beteko da pertsona fisikoen babesaz bezainbatean.

### **5. Epaimahaia**

Epaimahaia bertsolaritzaren arloko hiru adituk osatuko dute: **Amaia Agirre, Irune Basagoiti eta Mikel Arrillaga**, Mendaroko Inleike kultur taldeak proposatuta.

### **6. Epaia eta sari-banaketa**

Epaimahaiaren erabakia aldaezina izango da.

Kategoria guztietan, edozein sari eman gabe utzi ahalko da, baldin eta epaimahaiaren iritziz ezein lanek ez badu behar adinako meriturik edo kalitaterik.

Sari-banaketa 2026ko ekainaren 19an egingo da.

### **7. Kontuan hartu beharreko beste batzuk**

Saria nori eman behin ebatzi eta gero, saritutako lanak ezin izango dira aurkeztu inongo lehiaketatar, ezta inongo saririk jaso ere.

Behin saria ordainduta –sariari berari dagokion diru-ordaina baino ez da jasoko–, egileek saritutako lanak argitaratzeko baimena emango diote Mendaroko Udalari, lehiaketa ebatzi eta urtebeteko epean. Udalak saritutako lanak bere kabuz edo hirugarrenen bidez argitaratu ahal izango ditu, edozein bide eta modu baliatuta.

Halaber, C kategorian lehenengo saria jasotzen duen egileak baimena emango dio Mendaroko Udalari saritutako lanean oinarritutako emanaldi edo ikuskizun berri bat ekoizte aldera, lehiaketa ebatzi eta urtebeteko epean, egileak sariari berari dagokion diru-ordaina baino jasoko ez duelarik. Udalak horrela egitea erabakiz gero, bere kabuz edo hirugarrenen bidez ekoiztu ahal izango du, edozein bide eta modu baliatuta.

Saririk jasotzen ez duten lanak Udalaren bulegoetan berreskuratu ahal izango dira, ebazpena argitaratu eta hilabeteko epean. Epe hori igarota, Udalak jaso ez diren lanak suntsitu ahalko ditu.

Lehen argitalpena edo ekoizpena egiteko izan ezik –eskubide hori Mendaroko Udarentzat gordetzen da, oinarrien klausula honetan ezarritakoaren arabera–, saritutako lanak ustiatzeko eskubide guztiak zein bere egilearenak izango dira.

Lehiaketa honen garapenaren eta oinarri hauen interpretazioaren inguruko gatazka oro antolatzaileek ebatziko dute.

Lehiaketa hau arautzen duten oinarriak ez betetzeak berekin ekarriko du lehiaketatik baztertzea.